

# INGENIARITZA MEKANIKOKO GRADUA GRADU AMAIERAKO LANA

## *AUTOMOBILGINTZA- LANTEGI BATEN DISEINUA*

### *3. DOKUMENTUA-ERANSKINAK*

**Ikaslea:** Aguirregoicoa Ocerin, Maialen

**Zuzendaria:** Laraudogoitia Alzaga, Juan Esteban

**Ikasturtea:** 2018-2019

**Data:** Bilbon, 2019ko uztailearen 17an

# Aurkibidea

## **3. DOKUMENTUA: KALKULUEN ERANSKINA**

<b>3.1. EGITURAREN KALKULUA .....</b>	<b>1</b>
3.1.1. SARRERA .....	1
3.1.2. HASIERAKO DATUAK .....	2
3.1.3. EGITURAREN GAINEKO AKZIOAK.....	3
3.1.3.1. Akzio iraunkorrak.....	3
3.1.3.1.1. Berezko pisua.....	3
3.1.3.2. Akzio aldakorrak.....	5
3.1.3.2.1. Erabilerarengatiko gainkarga.....	5
3.1.3.2.2. Elurrarengatiko gainkarga .....	8
3.1.3.2.3. Haizearen eragina .....	12
3.1.3.2.4. Eragin termikoa .....	30
3.1.3.2.5. Ustekabeko akzioak .....	31
3.1.3.2.6. Lurrikara .....	31
3.1.3.2.7. Sutea.....	31
3.1.3.3. Akzioen konbinaketak.....	32
3.1.4. TEILATUAREN ESTALKIAREN AZTERKETA.....	37
3.1.5. ALBOKO ITXITUREN AZTERKETA .....	42
3.1.6. KALKULU PROGRAMEN BIDEZKO ALTZAIRUZKO EGITURAREN DIMENTSIONAKETA.....	47
3.1.6.1. Petralen azterketa eta konprobaketa.....	47
3.1.6.2. Portikoen osagaien azterketa .....	54

3.1.6.2.1. Profilen aukeraketa .....	56
3.1.6.2.2. Gilbordura.....	57
3.1.6.2.3. Albo gilbordura .....	59
3.1.6.2.4. Gezi limitea.....	60
3.1.6.2.5. Kargak.....	61
3.1.6.3. Portikoen osagaien konprobaketa .....	64
3.1.6.3.1. Profilak .....	64
3.1.6.3.2. Zimendapenak.....	82
3.1.6.4. Portikoen osagaien loturen konprobaketa .....	88
3.1.6.4.1. Ainguraketa plakak.....	88
3.1.6.4.2. Zutabe eta habeak .....	91
3.1.6.4.3. Arriostramenduak .....	196
3.1.6.4.4. Forjatua .....	200
3.1.6.4.5. Eskailera.....	202
<b>3.2. INSTALAZIOEN KALKULUA.....</b>	<b>205</b>
3.2.1. SANEAMENDUA .....	205
3.2.2. ELEKTRIZITATEA.....	213

## Irudien aurkibidea

3.1.irudia: SE-AE-3.5.3.2.....	9
3.2.irudia: SE-AE-42- E.2 .....	10
3.3.irudia: Abiadura basikoaren zuzenketa .....	13
3.4.irudia: SE-AE-23- D.1 .....	14
3.5.irudia: Haizeak eragindako presioa .....	16
3.6.irudia: Estalkiko petralak.....	17
3.7.irudia: Estalkiaren zonaldeen neurriak haizea albotik jotzean .....	19
3.8.irudia: Estalkiaren zonaldeen neurriak haizea aurretik jotzean.....	22
3.9.irudia: Itxituren zonaldeen neurriak haizea albotik jotzean .....	24
3.10.irudia: Itxituren zonaldeen neurriak haizea aurretik jotzean.....	25
3.11.irudia: Teilatuaren estalkiaren itxitura Nereo Elit .....	38
3.12.irudia: Estalkiaren geometria .....	39
3.13.irudia: Itxituren euste puntuen geometria .....	45
3.14.irudia: Portikoen dimentsioak .....	47
3.15.irudia: Portikoaren datu orokorrak .....	48
3.16.irudia: Haizearen eta elurraren datu orokorrak .....	49
3.17.irudia: Portikoen esportazioa .....	54
3.18.irudia: Altzairuzko egituraren datu orokorrak.....	55
3.19.irudia: Egituraren eskema.....	56
3.20.irudia: Profilen aukeraketa.....	57
3.21.irudia: Gezi limitea .....	60
3.22.irudia: Berezko pisua .....	61
3.23.irudia: Erabileraren karga estalkian .....	62
3.24.irudia: Erabilera karga bigarren solairuan .....	62
3.25.irudia: Haizearen gainkarga.....	63
3.26.irudia: Elurraren gainkarga .....	63
3.27.irudia: Portikoen osagaien konprobaketa .....	64
3.28.irudia: Zimendapenak.....	83
3.29.irudia: A motako zapata sinplea .....	84

3.30.irudia: B motako zapata sinplea .....	84
3.31.irudia: C motako zapata sinplea .....	85
3.32.irudia: D motako zapata sinplea .....	85
3.33.irudia: E motako zapata sinplea .....	86
3.34.irudia: F motako zapata sinplea.....	86
3.35.irudia: Lotura habeak.....	87
3.36.irudia: A ainguraketa plaka .....	89
3.37.irudia: B ainguraketa plaka .....	89
3.38.irudia: C ainguraketa plaka.....	90
3.39.irudia: D ainguraketa plaka.....	90
3.40.irudia: 1 eta 3 portikoen forjatuko habearen eta alboko zutabearen arteko lotura.....	92
3.41.irudia: 1 eta 3 portikoen forjatuko haben eta barneko zutabeen arteko lotura.....	98
3.42.irudia: 1 eta 3 portikoen goiko ertzetako lotura.....	109
3.43.irudia: 1 eta 3 portikoen gailurreko lotura .....	116
3.44.irudia: 2 portikoaren forjatuko habearen eta alboko zutabearen arteko lotura.....	126
3.45.irudia: 2 portikoaren forjatuko haben eta barneko zutabeen arteko lotura .....	135
3.46.irudia: 2 portikoaren forjatuko haben arteko lotura .....	140
3.47.irudia: 2 portikoaren goiko ertzetako lotura.....	145
3.48.irudia: 2 portikoaren gailurreko lotura .....	154
3.49.irudia: 4, 5, 6 eta 7 portikoetako gailurreko lotura.....	159
3.50.irudia: 4, 5, 6, eta 7 portikoetako goiko ertzetako lotura .....	165
3.51.irudia: 8. portikoaren goiko ertzetako lotura.....	174
3.52.irudia: 8. portikoaren habearen eta barneko zutabeen arteko lotura.....	182
3.53.irudia: 8 portikoaren gailurreko lotura .....	188
3.54.irudia: arriostramenduak.....	196
3.55.irudia: 1 motako arriostramendu lotura.....	197
3.56.irudia: 2 motako arriostramendu lotura.....	197
3.57.irudia: 3 motako arriostramendu lotura.....	198

3.58.irudia: 4 motako arriostramendu lotura .....	198
3.59.irudia: 5 motako arriostramendu lotura .....	199
3.60.irudia: 6 motako arriostramendu lotura .....	199
3.61.irudia: Plaka albeolarraren eskema .....	200
3.63.irudia: Forjatua .....	201
3.64.irudia: Plaka albeolarra.....	202
3.65.irudia: Eskaileraren eskema .....	203
3.66.irudia: Eskaileraren goiko tramua .....	204
3.67.irudia: Eskaileraren beheko trauma .....	204
3.68.irudia: Isoyeten mapa (I).....	208
3.69.irudia: Isoyeten mapa (II).....	208
3.70.irudia: Jaitsiera hodia.....	210

## Taulen aurkibidea

3.1.taula: Erabilera kargen taula.....	6
3.2.taula: Elurrarengatiko gainkarga.....	10
3.3.taula: Esposizio koefizienteak .....	14
3.4.taula: Bi uretako teilatuaren zonaldeak eta koefizienteak (Haizea albotik D.6 taula / SE-AE-30) .....	18
3.5.taula: Albotik jotzen duen haizearen koefizienteak teilatuan .....	20
3.6.taula: Bi uretako teilatuaren zonaldeak eta koefizienteak (Haizea luzetara D.6 taula / SE-AE-31).....	21
3.7.taula: Aurretik jotzen duen haizearen koefizienteak teilatuan.....	22
3.8.taula: Egituraren itxituren zonaldeak eta koefizienteak (D.3 taula / SE-AE 25).....	23
3.9.taula: Albotik jotzen duen haizearen koefizienteak itxituretan .....	25
3.10.taula: Aurretik jotzen duen haizearen koefizienteak itxituretan.....	26
3.11.taula: Alboetako haizea teilatuan.....	28
3.12.taula: Luzetarako haizea teilatuan.....	28
3.13.taula: Alboetako haizea itxituretan.....	29
3.14.taula: Luzetarako haizea itxituretan .....	29
3.15.taula: Akzioetarako segurtasun koefiziente partzialak ( $\gamma$ ).....	35
3.16.taula: Taula: Aldibereko koefizienteak ( $\varphi$ ) .....	35

3.17.taula: Panelak jasan beharreko kargak .....	39
3.18.taula: Estalkiak jasan beharreko kargak katalogoaren arabera .....	41
3.19.taula: "Olimpia 1100 PUR" estalkiaren ezaugarriak.....	43
3.20.taula: Panela jasan beharreko kargak .....	44
3.21.taula: Panelak jasan dezakeen karga maximoa xurgatzen.....	44
3.22.taula: Estalkiaren petralen frogapena .....	51
3.23.taula: Itxiturako petralen frogapena .....	53
3.24.taula: Zimendapenen taula .....	83
3.25.taula: Lotura habeen taula.....	87
3.26.taula: Isurbide kopurua .....	207
3.27.taula: Intentsitate publiometrika.....	209
3.28.taula: Kanaloien diametroak.....	210
3.29.taula: Jaitsiera-hodien diametroak.....	211
3.30.taula: Ur-biltzaileen taula .....	212
3.31.taula: Kutxatilen dimentsioak.....	213
3.32.taula: Guneen azalerak .....	215
3.33.taula: Erabilpenaren araerako guneen sailkapena .....	215



## 3. DOKUMENTUA: KALKULUEN ERANSKINA

### 3.1. EGITURAREN KALKULUA

#### 3.1.1. SARRERA

Eranskin honek eraikinaren elementuak eta saneamendu eta iturgintza instalazioen diseinuak biltzen ditu, hauek aukeratzeko erabakiak arrazoituz. Eraikinaren elementu ezberdinen materialen aukeraketa ere zehazten da bertan, hala nola, zutabeak, itxiturak, sabai azunak...

Hori horrela, elementu desberdinen abiapuntuko hipotesiak, kalkulu prozedura eta irizpideak bildu dira beharrezko emaitzak lortzeko.

Hortaz, hasierako datuak eta egituraren gain eragiten duten akzioak ezagututa, "CYPE Ingenieros" softwarearen bidez egituraren aurre-dimentsionamendua egin da, zehatz esanda "Generador de Pórticos" eta "CYPE 3D" moduluekin. Software honek emaitza definitiboetatik oso hurbil dauden behin behineko emaitzak ematen ditu, beraz, eskuzko aurre-dimentsionamendu prozesu luze asko ekiditen dira.

Esan beharra dago egindako kalkulu guztiak CTE (Código Técnico de la Edificación) araudian oinarrituz egin direla.

Dokumentuan kontuan hartuko diren hainbat puntu:

- Aukeratutako egitura eta zimendapenaren emaitzen arrazonamendua.
- Aplikazio-araudia.
- Segurtasun baldintzak.
- Materialen ezaugarriak.

- Kalkuluetan kontuan hartu beharreko akzioak.
- Segurtasun koefizienteak.
- Egituraren kalkulu-metodoak.
- Azken muga egoeren konprobaketa.

### 3.1.2. HASIERAKO DATUAK

Eraikinaren dimentsionamendua egiterako orduan kontuan hartutakoak:

- Egitura metalikodun eraikin industrialia.
- Bi uretako estalkia
- Argia: 20 m
- Luzera: 35 m
- Portikoen arteko distantzia: 5 m
- Estalkiaren inklinazio angelua: 10°
- Altuera librea: 6,2 m
- Lehen solairuaren altuera: 3 m
- Bigarren solairuaren altuera librea: 3,2 m
- Gailurraren altuera: 8m
- Estalkiak: EUROPERFIL Nereo Elit
- Itxiturak: EUROPERFIL Olimpia 1100
- Kokapena: Amorebieta-Etxanoko Arriagane Industrialdea
- Zonalde eolikoa: C zonaldea (CTE DB SE-AE arauaren D eranskinaren arabera)
- Lurraren tentsio onargarria: 0,245 kN/m<sup>2</sup>

### 3.1.3. EGITURAREN GAINEKO AKZIOAK

“Documento Básico de Seguridad Estructural – Acciones en la Edificación” (DB SE – AE) araudia jarraituz kalkulatzen dira akzioak, zeintzuk iraunkorrak, aldakorrak edo ustekabekoak izan daitezkeen.

Gainkargen konbinaketek eragindako efektuak elementu bakoitzaren dimentsionamendua baldintzatuko du.

#### 3.1.3.1. Akzio iraunkorrak

Denbora guztian eraikinean eragina dutenak dira. Ez da euren posizioa ezta balioa aldatzen eta egiturako elementu guztien pisu propioa barne hartzen dute.

DB SE- AE dokumentuko 2. puntuan datoz bilduta.

##### 3.1.3.1.1. Berezko pisua

Kontuan hartu beharreko pisu propioa itxituren, banatzaileen, elementu estrukturalen, trenkada-multzoen, aroztegi-elementuen eta ekipo finkoen pisuen batuketa izango da.

Grabitatezko akzio bat denez gero, bertikalki eragingo du.

$$q_{BP} = A \cdot \rho$$

- Petralen berezko pisua

Petralen pisuaren balioa CYPE programaren bitartez lortuko da, erabiliko diren profilak ezagunak baitira ZF eta C motako profilak hain zuzen.

Hortaz, profilen ebakidura sekzioa materialaren, kasu honetan altzairuaren dentsitateaz biderkatuz gero zentimetro karratu bakoitzeko berezko pisua lortuko da.

- Estalkiaren eta itxituren berezko pisua

Estalkiak hainbat karga jasateko gai izan behar du kalkulaturako hipotesien arabera. Hortaz, jasan beharreko kargen balioen arabera aukeratuko da panelen lodiera, zein  $\text{kg/m}^2$ -tan emango dena.

- Portikoen berezko pisua

Petralen berezko pisua kalkulatzeko orduan erabilitako prozedura erabiliko da, kasu honetan profilak desberdinak izango diren desberdintasunarekin.

- Forjatuaren berezko pisua

Behin altzairuzko portikoa kalkulaturik eta definituta izanik, goiko solairuaren zorua osatuko duen forjatuaren pisua estimatuko da.

Plaka albeolarrak erabiliko direnez, hauek salerosten dituen enpresa batetik hartuko dira eta beharko den modeloa erabakiz, hauek sortuko duten gainkarga kalkulatu da.

- Saneamendu- instalazioaren berezko pisua

Euri-ura eta baita hondakin-urak ere, eraikinetik atera beharko dira, eta horretarako kokatuko den instalazioaren pisua zehaztu beharko da.

### **3.1.3.2. Akzio aldakorrak**

Denbora pasa ahala, euren balioa aldatzen da. Erabileraren gainkarga, elurraren eragina eta haizearen eragina akzio aldakorrak dira.

DB SE- AE dokumentuko 3. puntuan datoz bilduta.

#### **3.1.3.2.1. Erabilerarengatiko gainkarga**

Erabileraren gainkarga, eraikina erabiltzeko asmoz bertan grabitatzeko duen edozeinek eragiten du.

Kontutan hartu behar da estalkira kontserbazio lanetarako soilik igo daitekeela eta lanak ez direla egingo haizea edo elurra dagoenean. Horregatik, erabilera "ez konkomitantea" kontsideratuko da eta soilik berezko pisuarekin konbinatuko da.

Egitura honentzako erabiliko den estalduraren berezko pisua 1 kN baino txikiagoa denez, egitura arina izango da. Beraz, **SE-AE 5-EN** arabera,

erabilerarentzako gainkargaren proiektzio horizontalaren balioa **0,4 kN/m<sup>2</sup>**-takoa izango da.


Tabla 3.1. Valores característicos de las sobrecargas de uso

Categoría de uso		Subcategorías de uso		Carga uniforme [kN/m <sup>2</sup> ]	Carga concentrada [kN]
A	Zonas residenciales	A1	Viviendas y zonas de habitaciones en, hospitales y hoteles	2	2
		A2	Trasteros	3	2
B	Zonas administrativas			2	2
C	Zonas de acceso al público (con la excepción de las superficies pertenecientes a las categorías A, B, y D)	C1	Zonas con mesas y sillas	3	4
		C2	Zonas con asientos fijos	4	4
		C3	Zonas sin obstáculos que impidan el libre movimiento de las personas como vestíbulos de edificios públicos, administrativos, hoteles; salas de exposición en museos; etc.	5	4
		C4	Zonas destinadas a gimnasio u actividades físicas	5	7
		C5	Zonas de aglomeración (salas de conciertos, estadios, etc)	5	4
D	Zonas comerciales	D1	Locales comerciales	5	4
		D2	Supermercados, hipermercados o grandes superficies	5	7
E	Zonas de tráfico y de aparcamiento para vehículos ligeros (peso total < 30 kN)			2	20 <sup>(1)</sup>
F	Cubiertas transitables accesibles sólo privadamente <sup>(2)</sup>			1	2
G	Cubiertas accesibles únicamente para conservación <sup>(3)</sup>	G1 <sup>(7)</sup>	Cubiertas con inclinación inferior a 20°	1 <sup>(4)(5)</sup>	2
			Cubiertas ligeras sobre correas (sin forjado) <sup>(5)</sup>	0,4 <sup>(4)</sup>	1
		G2	Cubiertas con inclinación superior a 40°	0	2

### 3.1.taula: Erabilera kargen taula

$$q_u = 0,4 \frac{kN}{m^2} \cdot \frac{1000 N}{1 kN} \cdot \frac{1 kg}{9,8 N} \cdot \frac{1 m^2}{10^4 cm^2} = 0,00407 \frac{kg}{cm^2}$$


Arau honek karga proiektzio horizontalean ematen du. Hortaz, kalkulaturako karga estalkiaren isurialdera pasatu beharko da.



Behin estaldurara pasatuta, norabide perpendikular eta paraleloan deskonposatu beharko da.


#### Norabide perpendikularrean:

$$q_u = \left(0,4 \frac{kN}{m^2} \cdot \cos 10^\circ\right) \cdot \cos 10^\circ = 0,388 \frac{kN}{m^2}$$



#### Norabide paraleloan

$$q_u = \left(0,4 \frac{kN}{m^2} \cdot \cos 10^\circ\right) \cdot \sin 10^\circ = 0,068 \frac{kN}{m^2}$$



CTE arautegiaren arabera, karga uniformearekin batera 1 KN/m-ko karga puntual bat ere kontsideratu beharko da estalkiaren punturik kritikoenean.

Hala ere, estalkiaren kasuan metro karratu bat eredu bezala hartzen ari denez, karga puntuala ez da kontutan hartuko eta karga uniformearen eragina bakarrik aztertuko da. Hala ere, diseinatzen ari den egiturak ez du konponketarako elementu garrantzitsurik eta horregatik karga hau mesprezatu egingo da. Gainera, aipatzekoa da konponketak burutzekotan mantentze garabi baten bidez egingo direla.

Horrez gain, bigarren solairua Administrazio gunea izango denez, erabileraren gainkarga  $2\text{kN/m}^2$ - takoa izango da.

#### **3.1.3.2.2. Elurrarengatiko gainkarga**

Elurraren eragina estalkiaren gainean guztiz aldatu egin daiteke geografiaren arabera, kokatuta dagoen eremu geografikoaren klimaren arabera, prezipitazio moten arabera edo estalkiaren formaren arabera.

Beraz, egitura arinen kasuan, koefizienteak honen arabera baldintzatuta egongo dira. Koefizienteak ateratzeko, lehenengoz kokapena erabili beharko da, honek koefizienteak baldintzatu egingo dituelako.

**SE-AE-10-EN** arabera, elurraren gainkargaren proiektzio horizontalaren balioa

(1) adierazpenaren bidez lortzen da:



$$q_n = \mu \cdot S_k \quad (1)$$

- $q_n$  elurraren karga balioa da. Beti norabide bertikala izango du.
- $\mu$  estalduraren forma koefizientea da, SE-AE-11-ren arabera,  $30^\circ$  baino gutxiagoko malda duen estalkietarako, eta kasu honetan malda  $10^\circ$ -koa denez:  **$\mu = 1$**

2 En un faldón limitado inferiormente por cornisas o limatesas, y en el que no hay impedimento al deslizamiento de la nieve, el coeficiente de forma tiene el valor de 1 para cubiertas con inclinación menor o igual que  $30^\circ$  y 0 para cubiertas con inclinación de mayor o igual que  $60^\circ$  (para valores intermedios se interpolará linealmente). Si hay impedimento, se tomará  $\mu = 1$  sea cual sea la inclinación.

### 3.1.irudia: SE-AE-3.5.3.2

- $s_k$ , lursail horizontal baten elurraren gainkargaren balio karakteristikoa da.

Diseinatuko den eraikin industrialak Amorebieta-Etxanoko Arriagane poligono industrialean kokatuko denez (80 m),  $S_k$ -ren balioa SE-AE-42-ren arabera lortuko da E.2 taulan interpolatuz.

$$\frac{200m - 0m}{0,5 \frac{kN}{m^2} - 0,3 \frac{kN}{m^2}} = \frac{200m - 80m}{0,5 \frac{kN}{m^2} - s_k} \rightarrow s_k = 0,38 \frac{kN}{m^2}$$



3.2.irudia: SE-AE-42- E.2

Tabla E.2 Sobrecarga de nieve en un terreno horizontal (kN/m<sup>2</sup>)

Altitud (m)	Zona de clima invernal, (según figura E.2)						
	1	2	3	4	5	6	7
0	0,3	0,4	0,2	0,2	0,2	0,2	0,2
200	0,5	0,5	0,2	0,2	0,3	0,2	0,2
400	0,6	0,6	0,2	0,3	0,4	0,2	0,2
500	0,7	0,7	0,3	0,4	0,4	0,3	0,2
600	0,9	0,9	0,3	0,5	0,5	0,4	0,2
700	1,0	1,0	0,4	0,6	0,6	0,5	0,2
800	1,2	1,1	0,5	0,8	0,7	0,7	0,2
900	1,4	1,3	0,6	1,0	0,8	0,9	0,2
1.000	1,7	1,5	0,7	1,2	0,9	1,2	0,2
1.200	2,3	2,0	1,1	1,9	1,3	2,0	0,2
1.400	3,2	2,6	1,7	3,0	1,8	3,3	0,2
1.600	4,3	3,5	2,6	4,6	2,5	5,5	0,2
1.800	-	4,6	4,0	-	-	9,3	0,2
2.200	-	8,0	-	-	-	-	-

3.2.taula: Elurrarengatiko gainkarga

Beraz elurraren gainkargaren balio horizontalaren balioa:

$$q_n = \mu \cdot s_k = 1 \cdot 0,38 = 0,38 \frac{kN}{m^2}$$


CTE-ren arabera, egitura agerian dagoenean elurraren kargaren balioaren %20-an handitu beharko litzateke, eta egitura haizearen eraginaren kontra ondo babestuta badago, berriz, kargaren balioaren %20 kendu beharko litzaioke.

Kasu honetan, ez da faktore hau kontutan hartuko.

Erabileraren karga kalkulatzeko orduan gertatu den moduan, kasu honetan ere lehenengo estaldurara pasatuko da eta gero norabide paralelo eta perpendikularrean deskonposatu.


#### Norabide perpendikularrean:

$$q_n = \left(0,38 \frac{kN}{m^2} \cdot \cos 10^\circ\right) \cdot \cos 10^\circ = 0,368 \frac{kN}{m^2}$$



#### Norabide paraleloan

$$q_u = \left(0,38 \frac{kN}{m^2} \cdot \cos 10^\circ\right) \cdot \sin 10^\circ = 0,065 \frac{kN}{m^2}$$



### 3.1.3.2.3. Haizearen eragina

CTE araudiaren arabera kontutan hartu dira haizearen indarrak. Lehenengoz, haizearen indarraren formula hartu eta koefizienteak aurkitu dira CTE-ean.

Haizearen eragina kalkulatzeko formula honako hau da:

$$q_e = q_b \cdot C_e \cdot C_p$$

Non:

$q_e$ : Haizearen indar erresultantea den, eta honen eragina gainazalarekiko elkarzuta izango den.

$q_b$ : Haizearen presio dinamikoa den.

$C_e$ : Esposizio koefizientea den, haizeak jotzen duen eraikuntzaren kokapenaren eta altueraren arabera izango dena, zeinen balioa taulatua dagoen.

$C_p$ : Koefiziente eolikoa edo presioko koefizientea da, gunearen, egituraren itxuraren eta haizearen norabidearen arabera da. Koefiziente hau positibo edo negatibo izan daiteke.

Formulan dauden parametroak kalkulatzeko hasiko gara, jakiteko zenbatekoa den haizearen indar erresultantea ( $q_e$ ).

- Presio dinamikoa  $q_b$

Koefiziente hau egoera guztietan berdina izango da. CTE-aren arabera kalkulatu dugu, formula hau erabiliz:

$$q_b = 0.5 \cdot \delta \cdot V_b^2$$

Non:

$V_b$ : Batezbesteko abiadura m/s-tan


$\delta$ : Haizearen dentsitatea =  $1.25 \text{ kg/m}^2$

Zerbitzu muga egoerak konprobatzeko, D.1 taularen koefizientei esker, egituraren iraupen diseinuaren arabera, handitu edo mantendu ahal da lehen lortutako batez besteko abiaduraren balioa. Egitura 50 urtetarako gutxi gorabehera diseinatuta egongo da. Ondorioz, zuzentze-koefizientea 1 izango da taula honen arabera:

**Tabla D.1 Corrección de la velocidad básica en función del periodo de servicio**

Periodo de retorno (años)	1	2	5	10	20	50	200
Coeficiente corrector	0,41	0,78	0,85	0,90	0,95	1,00	1,08

### 3.3.irudia: Abiadura basikoaren zuzenketa



## 3.4.irudia: SE-AE-23- D.1

Definituriko balioak aurreko formulan ordezkatzuz:

$$q_b = 0,5 \cdot 1,25 \cdot 29^2 = 525,625 \frac{N}{m^2} = 0,525 \frac{kN}{m^2}$$

- Esposizio koefizientea  $C_e$

Esposizio koefizientea haizeak jotzen duen altueraren eta eraikuntzaren kokapenaren arabera izango da. CTE-aren DB SE-AE 3.3.3 atalean agertzen den taula honen bidez lortuko da bere balioa:

Tabla 3.4. Valores del coeficiente de exposición  $c_e$

Grado de aspereza del entorno	Altura del punto considerado (m)	Altura del punto considerado (m)						
		3	6	9	12	15	18	24
I Borde del mar o de un lago, con una superficie de agua en la dirección del viento de al menos 5 km de longitud	2,4	2,7	3,0	3,1	3,3	3,4	3,5	3,7
II Terreno rural llano sin obstáculos ni arbolado de importancia	2,1	2,5	2,7	2,9	3,0	3,1	3,3	3,5
III Zona rural accidentada o llana con algunos obstáculos aislados, como árboles o construcciones pequeñas	1,6	2,0	2,3	2,5	2,6	2,7	2,9	3,1
IV Zona urbana en general, industrial o forestal	1,3	1,4	1,7	1,9	2,1	2,2	2,4	2,6
V Centro de negocio de grandes ciudades, con profusión de edificios en altura	1,2	1,2	1,2	1,4	1,5	1,6	1,9	2,0

## 3.3.taula: Esposizio koefizienteak

Kasu honetan, egitura gune industrial batetan egongo denez, laugarren taldearen barnean egongo da. Egituraren punturik altuenak 8 m-ko altuera du, beraz, interpolatuz, 8 m-ko altuera ematen duen koefizientea hartuko da.

$$\frac{9 \text{ m} - 6 \text{ m}}{1,7 - 1,4} = \frac{9 \text{ m} - 8 \text{ m}}{1,7 - C_e} \rightarrow C_e = 1,6$$

Modu berean, alboetako itxiturak izango duten altuera maximorako koefizientea kalkulatu beharko litzateke. Itxitura hauen altuera maximoko puntua 6,2 m-takoa da, altuera maximoa baino ia metro bi gutxiago.

Ondorioz, lortuko den koefizientea:

$$\frac{9 \text{ m} - 6 \text{ m}}{1,7 - 1,4} = \frac{9 \text{ m} - 6,2 \text{ m}}{1,7 - C_e} \rightarrow C_e = 1,42$$

Ondorioz, lortuko den koefiziente ez da askoz txikiagoa izango (1,42) teilatuaren altuerarekin konparatzen bada (1,6). Beraz, bi koefiziente desberdin erabili beharrean, teilatuak ematen duen altuera maximoaren koefizientea erabiliko da kalkulua guztietarako, kontserbakorragoa izanik.

$$C_e = 1,6$$

- Presio koefizientea  $C_p$

Presio koefizientea egituraren itxura, haizearen norabidea eta gunearen araberakoa da. Koefiziente hau positiboa Hegoa negatiboa izan daiteke. Haizea egitura bultzatzen ari bada presiopean dagoela suposatuko da, ondorioz, koefizientea positiboa izango da.

Haizea egituratik tiraka badabil berriz, estalkia igotzeko joerarekin, haizea xurgatzen dagoela suposatuko da eta koefizientea negatiboa izango da. Koefiziente hau zehazteko hainbat parametro eta haizearen hainbat egoera desberdin hartu beharko dira kontutan. Normalean, koefizientearen balio erreala kalkulatzeko barne presioa eta kanpo presio kontutan hartu behar dira. Barne presioa egiturak hutsune handiak dituenean kontutan hartzen da, baina kasu honetan egitura guztiz estalita egongo da itxiturak, teilatua eta atea erabiliz. Beraz, kanpo presioa bakarrik kalkulatu da.

**Tabla 3.6 Coeficientes de presión interior**

Esbeltez en el plano paralelo al viento	Área de huecos en zonas de succión respecto al área total de huecos del edificio											
	0,0	0,1	0,2	0,3	0,4	0,5	0,6	0,7	0,8	0,9	1	
≤1	0,7	0,7	0,6	0,4	0,3	0,1	0,0	-0,1	-0,3	-0,4	-0,5	
≥4	0,5	0,5	0,4	0,3	0,2	0,1	0,0	-0,1	-0,2	-0,3	-0,3	




Fig. 3.1 Presiones ejercidas por el viento en una construcción diáfana


### 3.5.irudia: Haizeak eragindako presioa

Teilatuaren estalkiak eta alboetako itxiturak izango dituzten balioak desberdinak izango dira, beraz, banaka kalkulatu da:



### Haizearen Cp koefizientea teilatuan


Kasu honetan, teilatua "Cubierta a dos aguas" motakoa izango da,  $10^\circ$ -ko (erdiko angelu positiboa izanik eta guztiz itxita dagoela kontsideratuko da. Ondorioz, haizearen norabidea eta haizearen eragin gunea kontutan hartu beharko da.



#### 3.6.irudia: Estalkiko petralak

- Alboetako haizea teilatuan


Haizeak albotik jotzean sortutako haizearen efektua aztertuko da, DB-SE-AE-ko 30. Orrialdean datorren taulan bilduta dagoena. Horretarako, gune desberdinetako koefizienteak erabiliko dira, F,G,H,I eta J guneetakoak, hain zuzen.

a) Dirección del viento  $-45^\circ \leq \theta \leq 45^\circ$ 

Pendiente de la cubierta $\alpha$	A (m <sup>2</sup> )	Zona (según figura)				
		F	G	H	I	J
-45°	$\geq 10$	-0,6	-0,6	-0,8	-0,7	-1
	$\leq 1$	-0,6	-0,6	-0,8	-0,7	-1,5
-30°	$\geq 10$	-1,1	-0,8	-0,8	-0,6	-0,8
	$\leq 1$	-2	-1,5	-0,8	-0,6	-1,4
-15°	$\geq 10$	-2,5	-1,3	-0,9	-0,5	-0,7
	$\leq 1$	-2,8	-2	-1,2	-0,5	-1,2
-5°	$\geq 10$	-2,3	-1,2	-0,8	0,2	0,2
	$\leq 1$	-2,5	-2	-1,2	0,2	0,2
5°	$\geq 10$	-1,7	-1,2	-0,6	-0,6	0,2
	$\leq 1$	+0,0	+0,0	+0,0	-0,6	-0,6
15°	$\geq 10$	-0,9	-0,8	-0,3	-0,4	-1
	$\leq 1$	0,2	0,2	0,2	+0,0	+0,0
30°	$\geq 10$	-0,5	-0,5	-0,2	-0,4	-0,5
	$\leq 1$	0,7	0,7	0,4	0	0
45°	$\geq 10$	-1,5	-1,5	-0,2	-0,4	-0,5
	$\leq 1$	0,7	0,7	0,4	0	0
45°	$\geq 10$	-0,0	-0,0	-0,0	-0,2	-0,3
	$\leq 1$	0,7	0,7	0,6	+0,0	+0,0
60°	$\geq 10$	-0,0	-0,0	-0,0	-0,2	-0,3
	$\leq 1$	0,7	0,7	0,6	+0,0	+0,0
60°	$\geq 10$	0,7	0,7	0,7	-0,2	-0,3
	$\leq 1$	0,7	0,7	0,7	-0,2	-0,3
75°	$\geq 10$	0,8	0,8	0,8	-0,2	-0,3
	$\leq 1$	0,8	0,8	0,8	-0,2	-0,3

3.4.taula: Bi uretako teiltuaren zonaldeak eta koefizienteak (Haizea albotik

## D.6 taula / SE-AE-30)



Planta

$$A_F = 4 \text{ m} \cdot 1,6 \text{ m} = 6,4 \text{ m}^2 < 10 \text{ m}^2$$

$$l_G = 28 \text{ m} \cdot 1,6 \text{ m} = 44,8 \text{ m}^2 > 10 \text{ m}^2$$

$$l_H = 8,4 \text{ m} \cdot 36 \text{ m} = 302,4 \text{ m}^2 > 10 \text{ m}^2$$

$$A_J = 1,6 \text{ m} \cdot 36 \text{ m} = 57,6 \text{ m}^2 > 10 \text{ m}^2$$

$$A_I = 8,4 \text{ m} \cdot 36 \text{ m} = 302,4 \text{ m}^2 > 10 \text{ m}^2$$

3.7.irudia: Estalkiaren zonaldeen neurriak haizea albotik jotzean

Eraikinaren inklinazioa  $10^\circ$ -takoa da eta azalera guztiak  $10 \text{ m}^2$ -tik gorakoak dira, F zonaldearena izan ezik.

Aurreko kasuan bezala, lortutako neurriak, zonaldeak eta teilatuaren angeluaren bidez hautatu beharreko adieraziko dira. Azalera desberdinak dituzten zonaldeen koefizienteak lortzeko iterazioa erabiliko da.

Presiopean		Xurgatzen	
<b>F zonaldea</b>	0,1	<b>F zonaldea</b>	-1,87
<b>G zonaldea</b>	0,1	<b>G zonaldea</b>	-1
<b>H zonaldea</b>	0,1	<b>H zonaldea</b>	-0,45
<b>I zonaldea</b>	-0,5	<b>I zonaldea</b>	-0,3
<b>J zonaldea</b>	-0,4	<b>J zonaldea</b>	-0,3


3.5.taula: Albotik jotzen duen haizearen koefizienteak teilatuan

$$1 \text{ m}^2 < A_F < 10 \text{ m}^2 \rightarrow \frac{10 - 1}{-2,25 - (-1,3)} = \frac{10 - 6,4}{-2,25 - X} \rightarrow X = -1,87$$

Behin hauek kalkulatu, jada haizeak albotik jotzean izango duen eragina kalkulatu daiteke, baina lehenengo aurretik jotzen duen kasua aztertuko da, kritikoena zein den zehazteko asmoarekin.

- Luzetarako haizea teilatuan

Haizeak aurrealdetik jotzean sortutako haizearen efektua aztertuko da, DB-SE-AE-ko 31. orrialdean datorren taulan bilduta dagoena. Horretarako, gune desberdinetako koefizienteak erabiliko dira, F,G,H eta I guneetakoak, hain zuzen.




Pendiente de la cubierta $\alpha$	A (m <sup>2</sup> )	Zona (según figura), $-45^\circ \leq \theta \leq 45^\circ$			
		F	G	H	I
-45°	≥ 10	-1.4	-1.2	-1.0	-0.9
	≤ 1	-2.0	-2.0	-1.3	-1.2
-30°	≥ 10	-1.5	-1.2	-1.0	-0.9
	≤ 1	-2.1	-2.0	-1.3	-1.2
-15°	≥ 10	-1.9	-1.2	-0.8	-0.8
	≤ 1	-2.5	-2.0	-1.2	-1.2
-5°	≥ 10	-1.8	-1.2	-0.7	-0.6
	≤ 1	-2.5	-2.0	-1.2	-1.2
5°	≥ 10	-1.6	-1.3	-0.7	-0.6
	≤ 1	-2.2	-2.0	-1.2	-0.6
15°	≥ 10	-1.3	-1.3	-0.6	-0.5
	≤ 1	-2.0	-2.0	-1.2	-0.5
30°	≥ 10	-1.1	-1.4	-0.8	-0.5
	≤ 1	-1.5	-2.0	-1.2	-0.5
45°	≥ 10	-1.1	-1.4	-0.9	-0.5
	≤ 1	-1.5	-2.0	-1.2	-0.5
60°	≥ 10	-1.1	-1.2	-0.8	-0.5
	≤ 1	-1.5	-2.0	-1.0	-0.5
75°	≥ 10	-1.1	-1.2	-0.8	-0.5
	≤ 1	-1.5	-2.0	-1.0	-0.5

Nota:

- No se deben mezclar valores positivos y negativos en una sola cara.

3.6.taula: Bi uretako teiltuaren zonaldeak eta koefizienteak (Haizea luzetara D.6 taula / SE-AE-31)



$$l_F = 4 \text{ m} \cdot 1,6 \text{ m} = 6,4 \text{ m}^2 < 10 \text{ m}^2$$

$$l_G = 6 \text{ m} \cdot 1,6 \text{ m} = 9,6 \text{ m}^2 < 10 \text{ m}^2$$

$$l_H = 8 \text{ m} \cdot 10 \text{ m} = 80 \text{ m}^2 > 10 \text{ m}^2$$

$$A_I = 26,4 \text{ m} \cdot 10 \text{ m} = 264 \text{ m}^2 > 10 \text{ m}^2$$

$$e = \min(b, 2h) = \min(20, 16) = 16 \text{ m}$$

3.8.irudia: Estalkiaren zonaldeen neurriak haizea aurretik jotzean

Presiopean		Xurgatzen	
<b>F zonaldea</b>	0	<b>F zonaldea</b>	-1,71
<b>G zonaldea</b>	0	<b>G zonaldea</b>	-1,58
<b>H zonaldea</b>	0	<b>H zonaldea</b>	-0,65
<b>I zonaldea</b>	0	<b>I zonaldea</b>	-0,55


3.7.taula: Aurretik jotzen duen haizearen koefizienteak teilatuan

$$1 \text{ m}^2 < A_F < 10 \text{ m}^2 \rightarrow \frac{10 - 1}{-1,45 - (-2,1)} = \frac{10 - 6,4}{-1,45 - X} \rightarrow X = -1,71$$

$$1 \text{ m}^2 < A_G < 10 \text{ m}^2 \rightarrow \frac{10 - 1}{-1,3 - (-2)} = \frac{10 - 9,6}{-1,3 - X} \rightarrow X = -1,58$$

Kasu honetan F eta G zonaldeen azalerek ez dituzte  $10\text{m}^2$ -ak gainditzen eta berriz ere, interpolazioak erabili dira koefizienteen balioak lortzeko, eraikinaren inklinazio-angelua  $10^\circ$ -takoa denez gero.


### Haizearen Cp koefizientea itxituretan



A (m <sup>2</sup> )	h/d	Zona (según figura), $-45^\circ < \theta < 45^\circ$				
		A	B	C	D	E
$\geq 10$	5	-1,2	-0,8	-0,5	0,8	-0,7
	1	"	"	"	"	-0,5
	$\leq 0,25$	"	"	"	0,7	-0,3
5	5	-1,3	-0,9	-0,5	0,9	-0,7
	1	"	"	"	"	-0,5
	$\leq 0,25$	"	"	"	0,8	-0,3
2	5	-1,3	-1,0	-0,5	0,9	-0,7
	1	"	"	"	"	-0,5
	$\leq 0,25$	"	"	"	0,7	-0,3
$\leq 1$	5	-1,4	-1,1	-0,5	1,0	-0,7
	1	"	"	"	"	-0,5
	$\leq 0,25$	"	"	"	"	-0,3

3.8.taula: Egituraren itxituren zonaldeak eta koefizienteak (D.3 taula / SE-AE 25)

- Alboetako haizea itxituretan



3.9.irudia: Itxituren zonaldeen neurriak haizea albotik jotzean

$$\frac{h}{d} = \frac{8 \text{ m}}{20 \text{ m}} = 0,4$$

Kasu honetan zonalde guztien azalerek  $10\text{m}^2$ -ak gainditzen dituzte eta berriz ere, interpolazioak erabili dira koefizienteen balioak lortzeko,  $h/d$  erlazioa 0,4-koa denez gero.




Presiopean		Xurgatzen	
A zonaldea	0	A zonaldea	-1,2
B zonaldea	0	B zonaldea	-0,8
C zonaldea	0	C zonaldea	-0,5
D zonaldea	0,72	D zonaldea	0
E zonaldea	0	E zonaldea	-0,34

3.9.taula: Albotik jotzen duen haizearen koefizienteak itxituretan

- Luzetarako haizea itxituretan

Aurreko eskemak haizea albo batetik jotzen duen egoerarako pentsatuta dago, baina aurretik jotzen badu ere kontutan hartu behar da. Horretarako, aurreko marrazkiaren distribuzioa aldatuko da, aurreko aurpegiak alboetakoak izanik eta alboetakoak aurrekoak ( D eta E aurrean eta atzean, A, B eta C alboetan).



3.10.irudia: Itxituren zonaldeen neurriak haizea aurretik jotzean

$$\frac{h}{d} = \frac{6,2 \text{ m}}{36 \text{ m}} = 0,172 < 0,25$$

Kasu honetan A zonaldearen azalerak ez ditu 10m<sup>2</sup>-ak gainditzen (9,92 m<sup>2</sup>).

Presiopean		Xurgatzen	
<b>A zonaldea</b>	0	<b>A zonaldea</b>	-1,2
<b>B zonaldea</b>	0	<b>B zonaldea</b>	-0,8
<b>C zonaldea</b>	0	<b>C zonaldea</b>	X
<b>D zonaldea</b>	0,7	<b>D zonaldea</b>	0
<b>E zonaldea</b>	0	<b>E zonaldea</b>	-0,3

3.10.taula: Aurretik jotzen duen haizearen koefizienteak itxituretan

- Haizeak sortutako indar tangentialak

Haizearen eragina, indar tangentialak sortzen ditu gainazalarekiko norabide paraleloan. Hauek kalkulatu dira presio indarraren eta marruskadura koefizientearen biderkadura eginez, non, gainazala oso leuna bada marruskadura koefizientea 0,01 izango da.

Egitura honen kasuan "tapajuntas" motako sandwich Panela jarri da, hori dela eta, gure egituraren gainazala leuna izango da, marruskaduraren balioa oso

txikia izanik. Indar hauek portikoek arriostamendurik behar duten kalkulatzeko balio dute.

Tentsioak onargarriak baino handiagoak badira arriostamenduak jarri beharko dira egitura zurrunagoa izan dadin, bestela egitura apurtu egingo litzatekeelako. Indar hau txikiagoa bada elkarzutean eragiten dutenean baino %10 ez dira kontsideratuko kalkuluetarako.

Azkenengo azalpen hau CTE "Acciones de Edificación"-ean aurkitu daiteke.

- Kalkuluak

Behin koefiziente guztiak izanik, eremu bakoitzean agertuko diren indarren balioa azalera unitateko kalkulatu da. Taulan agertzen diren haizearen indarrak aplikatzerako orduan, gainazalekiko elkarzut aplikatu beharko dira.

$$q_e = q_b \cdot c_e \cdot c_p = (0,525) \cdot (1,6) \cdot c_p \left[ \frac{kN}{m^2} \right]$$

$$q_e = (0,84) \cdot c_p \left[ \frac{kN}{m^2} \right]$$

Ikusi daitekeenez, presio dinamikoaren eta esposizio koefizientearen biderkadura ia unitatea ematen dute. Beraz, haizearen indarraren balioa presio koefizientearen balioa izango da gutxi gora behera.

ALBOETAKO HAIZEA TEILATUAN

GUNEA	AKZIOA (Haizea albotik)	INDARRAK (kN/m <sup>2</sup> ) $q_e = q_b \cdot C_e \cdot C_p$
F	Presiopean	0,084
	Xurgatzen	-1,57
G	Presiopean	0,084
	Xurgatzen	-0,84
H	Presiopean	0,084
	Xurgatzen	-0,378
I	Presiopean	-0,42
	Xurgatzen	-0,252
J	Presiopean	-0,336
	Xurgatzen	-0,252

3.11.taula: Alboetako haizea teilatuan

LUZETARAKO HAIZEA TEILATUAN

GUNEA	AKZIOA (Haizea luzetara)	INDARRAK (kN/m <sup>2</sup> ) $q_e = q_b \cdot C_e \cdot C_p$
F	Presiopean	0
	Xurgatzen	-1,436
G	Presiopean	0
	Xurgatzen	-1,327
H	Presiopean	0
	Xurgatzen	-0,546
I	Presiopean	0
	Xurgatzen	-0,462

3.12.taula: Luzetarako haizea teilatuan

ALBOETAKO HAIZEA ITXITURETAN

GUNEA	AKZIOA (Haizea albotik)	INDARRAK (kN/m <sup>2</sup> ) $q_e = q_b \cdot C_e \cdot C_p$
A	Presiopean	0
	Xurgatzen	-1,008
B	Presiopean	0
	Xurgatzen	-0,627
C	Presiopean	0
	Xurgatzen	-0,42
D	Presiopean	0,605
	Xurgatzen	0
E	Presiopean	0
	Xurgatzen	-0,286

3.13.taula: Alboetako haizea itxituretan

LUZETARAKO HAIZEA ITXITURETAN

GUNEA	AKZIOA (Haizea luzetara)	INDARRAK (kN/m <sup>2</sup> ) $q_e = q_b \cdot C_e \cdot C_p$
A	Presiopean	0
	Xurgatzen	-1,008
B	Presiopean	0
	Xurgatzen	-0.672
C	Presiopean	0
	Xurgatzen	X
D	Presiopean	0,588
	Xurgatzen	0
E	Presiopean	0
	Xurgatzen	-0,252

3.14.taula: Luzetarako haizea itxituretan

#### 3.1.3.2.4. Eragin termikoa

Eragin termikoei dagokienez, kontuan hartu behar da eraikinak deformazioetara eta kanpoko giro-tenperaturaren aldaketei zor izandako aldaketa geometrikoen mende dagoela. Akzio hauen magnitudea egitura kokatuko den lekuaren baldintza klimatikoaren, orientazioaren eta esposizio graduaren menpe dago, hala nola isolamendu termikoko graduaren menpe.

Eraikinarekiko tenperaturaren aldaketek elementu eraikitzaile guztien deformazioetara eramaten dute, baina bereziki egiturazkoetatik, finko dauden kasuetan, elementuetan tentsioak eragingo dituztelako. Eraikin honetarako, elementu finko hauen tenperaturaren aldaketek sortutako tentsioen efektuak gutxitzera laguntzeko, zabalkuntza-juntura bat

jartzea aukeratu da. Normalean, hormigoiz edo altzairuz osaturiko egituretan, 40 m-ko luzera baino gehiago duten elementu jarraiturik ez badaude, ez dira elementuetan akzio termikoak kontuan hartuko eta ez da juntura bat erabiltzea kontsideratuko.

Kasu honetan, eragin hau zolatuaren distribuzio egiteko kontutan hartuko da, zolatuaren dilatazio, banaketa eta kontrakzio junten posizioa non egongo den definitzeko.

### 3.1.3.2.5. Ustekabeko akzioak

Efektu sismiko edo suteek eragindako akzioak dira eta DB SE- AE dokumentuko 4. puntuan datoz bilduta.

### 3.1.3.2.6. Lurrikara

Eragin sismikoak NSCE-an (Norma de Construcción Sismorresistente) dokumentuan doituta daude. Beraz, dokumentuan azaltzen den moduan, arautegi hau ez da aplikatu behar izango eraikuntza honetan, garrantzi normaleko eraikina delako, hurrengo puntuengatik:

Beraien artean ondo lotuta dauden portikoak dituelako.

Bere kokalekuaren oinarrizko azelerazio sismikoak ez du grabitatearena gainditzen (0,08 G).

Lurrikaragatik sortuko den suntsiketa hilketak eta hirugarrenei kalte ekonomikoak sortu ditzake, baina ez da garrantzizko zerbitzu bat eta ez du efektu katastrofikorik sortuko.

### 3.1.3.2.7. Sutea

Sutearen eraso termikoari zor izandako akzioak 8.Dokumentuan definitzen dira: **Berezko garrantzia duten azterlanak, 8.1 Dokumentuan** zehazki.

### 3.1.3.3. Akzioen konbinaketak

Behin egituraren gain eragina duten akzioak kalkulatuta izanik, haien arteko konbinaketak planteatu behar dira, errealitatean jasan dezakeen egoerak irudikatuz. Konbinaketak definitzeko **CTE-SE dokumentuaren 4.2.2 atalean (SE-9/10 orrialdeak)** agertzen diren pausuak jarraituko dira. Hurrengo puntuak gerta daitezkeen hiru kasuen erreferentzia orokor bat bakarrik izango dira, ezaugarri guztiak dokumentuan agertzen baitira:

- I. Egoera iraunkor edo aldi baterako baten akzioen efektuaren kalkularen balioa adierazteko, hurrengo akzio konbinazioen bitartez zehaztuko da:

$$\sum_{j \geq 1} \gamma_{G,j} \cdot G_{k,j} + \gamma_P \cdot P + \gamma_{Q,1} \cdot Q_{k,1} + \sum_{i > 1} \gamma_{Q,i} \cdot \psi_{0,i} \cdot Q_{k,i}$$

- II. Ohikoa ez den egoera baten akzioen efektuaren kalkularen balioa adierazteko, hurrengo akzio konbinazioen bitartez zehaztuko da:

$$\sum_{j \geq 1} \gamma_{G,j} \cdot G_{k,j} + \gamma_P \cdot P + A_d + \gamma_{Q,1} \cdot \psi_{1,1} \cdot Q_{k,1} + \sum_{i > 1} \gamma_{Q,i} \cdot \psi_{2,i} \cdot Q_{k,i}$$

- III. Ustekabeko akzioa sismikoa den kasuetan, aldibereko akzio aldakor guztiak bere balio iraunkorarekin kontuan hartuko dira. Hurrengo akzio konbinazioen bitartez zehaztuko da:

$$\sum_{j \geq 1} G_{k,j} + P + A_d + \sum_{i > 1} \psi_{2,i} \cdot Q_{k,i}$$



Lehenengo hipotesia iraunkorrek edo aldi baterako akzioak jasaten dituzten egoerak kontutan hartzen ditu, hau da, berezko pisua, haizea, elurra eta erabilera kontutan hartzen dituen hipotesia da.

Bigarren eta hirugarren hipotesiak, berriz, ohikoak ez diren egoera baten edo ustekabeko akzioen kasuetarako erabiltzen dira, hurrenez hurren. Azken bi hipotesi hauek ez dira lehenengo hipotesiak planteatuko dituen kasuak baino txarragoak izango, beraz, lehenengo hipotesia erabiliko da.

Aplikatu diren akzioak jakinda eta hautatutako hipotesiaren planteamendua ezagutuz, bederatzi akzio konbinaketa kasu aterako dira, non berezko pisua, erabileragatiko gainkarga, elurra eta haizea agertuko dira, azken hau bai presioan eta depresioan planteatuta egonik:

1)  $y_G \cdot Q_{PP}$

2)  $y_G \cdot Q_{PP} + y_U \cdot Q_U$

3)  $y_G \cdot Q_{PP} + y_N \cdot Q_N$

4)  $y_G \cdot Q_{PP} + y_{VP} \cdot Q_{VP}$

5)  $y_G \cdot Q_{PP} + y_{VS} \cdot Q_{VS}$

6)  $y_G \cdot Q_{PP} + y_N \cdot Q_N + \psi_O \cdot y_{VP} \cdot Q_{VP}$

$$7) y_G \cdot Q_{PP} + y_N \cdot Q_N + \psi_O \cdot y_{VS} \cdot Q_{VS}$$

$$8) y_G \cdot Q_{PP} + y_{VP} \cdot Q_{VP} + \psi_O \cdot y_N \cdot Q_N$$

$$9) y_G \cdot Q_{PP} + y_{VS} \cdot Q_{VS} + \psi_O \cdot y_N \cdot Q_N$$

Ikusi daitekeenez, erabileragatiko gainkarga berezko pisuarekin bakarrik planteatuko da. Gainkarga hori norbait teilatura igoko den momenturako kontutan hartzen da, beraz, elurra, haizea edo beste motako egoera klimatiko ematen bada ez da inor igoko (pertsonearen seguritatea ziurtatzeko asmoarekin) eta ez da besteekin konbinatuko.

Jarraian, hipotesien koefizienteen balioak definituko dira **CTE-SE dokumentua 4.1 eta 4.2 tauletan (SE-11 orrialdea)** agertzen diren taulak erabiliz. Bi motako koefiziente agertzen dira, alde batetik segurtasun koefizienteak, akzioen eragina handitzeko edo txikitzeko erabiliak, eta beste aldetik aldibereko koefizienteak, akzioa bat baino gehiago aldi berean ematen den kasuetarako.

$\gamma$  koefizientearen kasuan lehenengoz akzio mota definitu behar da. Iraunkorra bada, aurkako egoera bat sortzen badu 1,35 balioa izango du eta aldeko egoera batean 0,8 izango da. Akzio aldakor bat bada, berriz, aurkako egoera bat sortzen badu 1,5 balioa izango du eta aldeko egoera batean 0 izango da.

Koefiziente honen balio guztiak **4.1 Taulan** adierazten dira:

Tabla 4.1 Coeficientes parciales de seguridad ( $\gamma$ ) para las acciones

Tipo de verificación <sup>(1)</sup>	Tipo de acción	Situación persistente o transitoria	
		desfavorable	favorable
Resistencia	Permanente		
	Peso propio, peso del terreno	1,35	0,80
	Empuje del terreno	1,35	0,70
	Presión del agua	1,20	0,90
	Variable	1,50	0
Estabilidad		desestabilizadora	estabilizadora
	Permanente		
	Peso propio, peso del terreno	1,10	0,90
	Empuje del terreno	1,35	0,80
	Presión del agua	1,05	0,95
Variable	1,50	0	

<sup>(1)</sup> Los coeficientes correspondientes a la verificación de la resistencia del terreno se establecen en el DB-SE-C

3.15.taula: Akzioetarako segurtasun koefiziente partzialak ( $\gamma$ )

$\psi$  akzio aldakor bat baino gehiago kontutan hartzen bada erabiliko da, hau da, haizea eta elurra daudenean planteatuko diren hipotesiak. Erabileragatiko gainkarga konbinatzen ez denez, ez da kontutan hartuko. Koefiziente honen balio guztiak **4.1 Taulan** adierazten dira:

Tabla 4.2 Coeficientes de simultaneidad ( $\psi$ )

	$\psi_0$	$\psi_1$	$\psi_2$
Sobrecarga superficial de uso (Categorías según DB-SE-AE)			
• Zonas residenciales (Categoría A)	0,7	0,5	0,3
• Zonas administrativas (Categoría B)	0,7	0,5	0,3
• Zonas destinadas al público (Categoría C)	0,7	0,7	0,6
• Zonas comerciales (Categoría D)	0,7	0,7	0,6
• Zonas de tráfico y de aparcamiento de vehículos ligeros con un peso total inferior a 30 kN (Categoría E)	0,7	0,7	0,6
• Cubiertas transitables (Categoría F)		(1)	
• Cubiertas accesibles únicamente para mantenimiento (Categoría G)	0	0	0
Nieve			
• para altitudes > 1000 m	0,7	0,5	0,2
• para altitudes $\leq$ 1000 m	0,5	0,2	0
Viento	0,6	0,5	0
Temperatura	0,6	0,5	0
Acciones variables del terreno	0,7	0,7	0,7

<sup>(1)</sup> En las cubiertas transitables, se adoptarán los valores correspondientes al uso desde el que se accede.

3.16.taula: Taula: Aldibereko koefizienteak ( $\varphi$ )

Akzio bat aurkakoa izango da bi baldintza betetzean: beste akzioekin konparatuz karga kantitate handiagoa bat denean eta bere zentzua egituraren egonkortasunean eragin txarra izango duenean, edo sinpleki aurkako kargen zentzu bera duenean. Beraz, akzio bat aldekoa izango da bere zentzua aurkako kargen aurkakoa bada.

Orain, koefizienteak definituta izanik, planteatutako 9 hipotesien artean kritikoenak zeintzuk diren definitu beharko da kalkuluak egin baino lehen. Beraz, aurreko zerrenda erabiliz eragin txikiago dutenak kenduko dira:

~~1)  $y_G \cdot Q_{PP}$~~

~~2)  $y_G \cdot Q_{PP} + y_U \cdot Q_U$~~

~~3)  $y_G \cdot Q_{PP} + y_N \cdot Q_N$~~

~~4)  $y_G \cdot Q_{PP} + y_{VP} \cdot Q_{VP}$~~

~~5)  $y_G \cdot Q_{PP} + y_{VS} \cdot Q_{VS}$~~

~~6)  $y_G \cdot Q_{PP} + y_N \cdot Q_N + \psi_O \cdot y_{VP} \cdot Q_{VP}$~~

~~7)  $y_G \cdot Q_{PP} + y_N \cdot Q_N + \psi_O \cdot y_{VS} \cdot Q_{VS}$~~

~~8)  $y_G \cdot Q_{PP} + y_{VP} \cdot Q_{VP} + \psi_O \cdot y_N \cdot Q_N$~~

~~9)  $y_G \cdot Q_{PP} + y_{VS} \cdot Q_{VS} + \psi_O \cdot y_N \cdot Q_N$~~

Ikusi daitekeenez, 4 hipotesi nagusi geratzen dira. Lehenengoa erabileragatiko gainkarga kontutan hartzen du, bigarrena haizea depresioan (xurgatzen) duen

eragina, presioan duena baino handiagoa delako. Hirugarren eta laugarren hipotesiak haizea presioan eta elurra dute barne, bi balioen konbinaketa irizpidea aldatuz.

$$1) y_G \cdot Q_{PP} + y_U \cdot Q_U$$

$$2) y_G \cdot Q_{PP} + y_{VS} \cdot Q_{VS}$$


$$3) y_G \cdot Q_{PP} + y_N \cdot Q_N + \psi_O \cdot y_{VP} \cdot Q_{VP}$$

$$4) y_G \cdot Q_{PP} + y_{VP} \cdot Q_{VP} + \psi_O \cdot y_N \cdot Q_N$$

#### 3.1.4. TEILATUAREN ESTALKIAREN AZTERKETA

Atal honetan, eraikinaren teilatua osatuko duen estalki mota aukeratuko da, aurreko puntuetan kalkulatu diren indar baldintzak frogatuz. Jada esan denez, sandwich motako Panelak erabiliko dira.

Babesteko erabiliko den estalkia aukeratzeko orduan, enpresa anitzen produktuei so egin da. Kasu honetan "EUROPERFIL" enpresak eskaintzen duen "Nereo Elit" modeloa, beharrezkoak diren baldintzak betetzen dituela suposatu delako.



#### Propiedades de la cobertura exterior:

Concepto	Norma de ref.
Tolerancias dimensionales	EN 10143
Aceros con recubrimientos por inmersión en caliente	EN 10346
Aceros con recubrimiento orgánico (prelacados)	EN 10169

Características físicas panel:			
Peso Panel (kg/m <sup>2</sup> )	Espesor del panel (mm)		
Esp. Ext: 0,50 mm	30	40	50
A. Útil: 1.100 mm	6,58	6,98	7,38

#### 3.11.irudia: Teilatuaren estalkiaren itxitura Nereo Elit


Estalkia eta petralak torlojuen bitartez egongo dira lotuak. Panela pieza bakoitzak 1100 mm izango du zabalera, 50 mm lodiera izango dute eta bere luzera portikoaren arabera aukeratuko da. Beraz, hasierako datuak hurrengoak izango dira:

- "Nereo Elit" modeloa
- e = 50 mm
- 7 euskarri (petral) isurialde bakoitzean
- 1,45 m euskarrien artean
- Panelaren pisua =  $7,38 \text{ kg/m}^2 = 0,0724 \text{ kN/m}^2$

Orain, 3.1.3.8 atalean kalkulatuako konbinaketa txarrenak erabiliko dira estalkia frogatzeko. Lehenengoz, lortutako indarrak deskonposatuta adieraziko dira eta jarraian akzioen konbinaketak planteatuko dira:

INDARRAK	NORABIDEA	INDARRAK (kN/m <sup>2</sup> )
Pisua	Perpendikular	0,0721
	Paralelo	6,31 X 10 <sup>-6</sup>
Erabilera	Perpendikular	0,388
	Paralelo	0,068
Elurra	Perpendikular	0,368
	Paralelo	0,065
Haizea presiopean	Perpendikular	0,084
	Paralelo	0
Haizea xurgatzen	Perpendikular	-1,57
	Paralelo	0

3.17.taula: Panelak jasan beharreko kargak



3.12.irudia: Estalkiaren geometria

$$1. \quad \gamma_G \cdot Q_{PP} + \gamma_U \cdot Q_U$$

$$\perp \rightarrow 1,35 \cdot (0,0721) + 1,5 \cdot (0,388) = 0,679 \text{ kN/m}^2$$

$$\parallel \rightarrow 1,35 \cdot (6,31 \times 10^{-6}) + 1,5 \cdot (0,068) = 0,102 \text{ kN/m}^2$$

$$2. \quad \gamma_G \cdot Q_{PP} + \gamma_{VS} \cdot Q_{VS}$$

$$\perp \rightarrow 0,8 \cdot (0,0721) + 1,5 \cdot (-1,57) = -2,297 \text{ kN/m}^2$$

$$\parallel \rightarrow 0,8 \cdot (6,31 \times 10^{-6}) + 1,5 \cdot (0) = 5,048 \times 10^{-6} \text{ kN/m}^2$$

$$3. \quad \gamma_G \cdot Q_{PP} + \gamma_N \cdot Q_N + \psi_0 \cdot \gamma_{VP} \cdot Q_{VP}$$

$$\perp \rightarrow 1,35 \cdot (0,0721) + 1,5 \cdot (0,368) + 0,6 \cdot 1,5 \cdot (0,084) = 0,653 \text{ kN/m}^2$$

$$\parallel \rightarrow 1,35 \cdot (6,31 \times 10^{-6}) + 1,5 \cdot (0,065) + 0,6 \cdot 1,5 \cdot (0) = 0,098 \text{ kN/m}^2$$

$$4. \quad \gamma_G \cdot Q_{PP} + \gamma_{VP} \cdot Q_{VP} + \psi_0 \cdot \gamma_N \cdot Q_N$$

$$\perp \rightarrow 1,35 \cdot (0,0721) + 1,5 \cdot (0,084) + 0,6 \cdot 1,5 \cdot (0,368) = 0,555 \text{ kN/m}^2$$

$$\parallel \rightarrow 1,35 \cdot (6,31 \times 10^{-6}) + 1,5 \cdot (0) + 0,5 \cdot 1,5 \cdot (0,065) = 0,049 \text{ kN/m}^2$$



Lortutako emaitzak aztertzen badira, argi ikusten da kasu txarrena haizea xurgatzen jotzen duenean izango dela, beste balioekin konparatuz ia 5 aldiz handiagoa delako.

Beraz, kasu honetarako estalkia zenbat karga jasan dezakeen aterako da hurrengo taula erabiliz:

Carga a presión (daN/m <sup>2</sup> ):		Ancho apoyo: 100 mm							
		Luz máxima admisible a vano simple (m)							
Esp. Panel (mm):	1,00	1,25	1,50	1,75	2,00	2,25	2,50	2,75	3,00
30	334	212	146	106	80	63	50	40	33
40	352	223	154	112	84	66	52	43	35
50	395	251	173	126	95	74	59	48	40
		Luz máxima admisible a vano doble (m)							
Esp. Panel (mm):	1,00	1,25	1,50	1,75	2,00	2,25	2,50	2,75	3,00
30	593	376	259	188	142	112	88	71	58
40	625	396	273	199	149	117	92	76	62
50	702	446	307	224	168	131	104	85	71

Carga a depresión <sup>(2)</sup> (daN/m <sup>2</sup> ):		Luz máxima admisible a vano simple o doble (m)							
Esp. Panel (mm):	1,00	1,25	1,50	1,75	2,00	2,25	2,50	2,75	3,00
30	664	423	293	214	163	128	103	84	70
40	726	463	320	234	178	140	112	92	77
50	775	494	342	250	190	149	120	98	82

3.18.taula: Estalkiak jasan beharreko kargak katalogoaren arabera

Ikusten denez, bi kasu eman daitezke, karga presioan edo depresioan (xurgatzen) ematen denean.


Esan denez, kasu txarrena depresioan ematen denez, honen limitea kalkulatu da, presioan ematen diren karga limite balioak indarren bidez lortutakoak baino askoz handiagoak direlako.

Ondorioz, iterazioen bidez euskarrien (petralen) artean 1,45 m distantzia duen estalkia, 50 mm-ko lodierarekin eta xurgatzen  $372,4 \text{ daN/m}^2$  jasan dezake, hau da,  $3,72 \text{ kN/m}^2$ . Beraz, lortutako indarren karga maximoa  $2,297 \text{ kN/m}^2 < 3,72 \text{ kN/m}^2$  izanik, hautatutako estalki mota eta bere ezaugarriak onargarriak direla ondorioztatu da.

$$[2,297 \text{ kN/m}^2 < 3,72 \text{ kN/m}^2]$$

### 3.1.5. ALBOKO ITXITUREN AZTERKETA

Eraikinaren alboetako itxiturak aukeratzeko irizpideak teilatuaren estalkia aukeratzeko erabili diren berdinak izango dira. Beraz, aurreko kasuan bezala, "EUROPERFIL" enpresak eskaintzen duen modelo bat erabili da, "Olimpia 1100 PUR" modeloa, beharrezkoak diren baldintzak betetzen dituela suposatu delako.



**Propiedades de la cobertura exterior e interior:**

Concepto	Norma de ref.
Tolerancias dimensionales	EN 10143
Aceros con recubrimientos por inmersión en caliente	EN 10346
Aceros con recubrimiento Orgánicos (Prelacados)	EN 10169

Características físicas panel:						
Peso Panel (kg/m <sup>2</sup> ) Esp. Ext: 0,50 mm Int: 0,50 mm	Espesor del panel (mm)					
	35	40	50	60	70	80
A. Útil: 1.100 mm	10,18	10,40	10,84	11,28	11,72	12,16

3.19.taula: "Olimpia 1100 PUR" estalkiaren ezaugarriak

Beraz, hasierako datuak hurrengoak izango dira:

- " Olimpia 1100 PUR " modeloa
- e = 50 mm
- 6 euskarri (petral)
- 1 m.-ko distantzia euskarrien artean
- Panelaren pisua =  $10,65 \text{ kg/m}^2 = 0,1044 \text{ kN/m}^2$

Aurreko kasuetan bezala, lortutako indarrak deskonposatuta adieraziko dira eta jarraian akzioen konbinaketak planteatuko dira. Kasu honetan, pisua bertikalki eragina izango du (estalkiarekiko paralelo) eta haizea horizontalean joko du (estalkiarekiko perpendikular):


INDARRAK	NORABIDEA	INDARRAK (kN/m <sup>2</sup> )
Pisua	Perpendikular	0
	Paralelo	0,1044
Erabilera	Perpendikular	0
	Paralelo	0
Elurra	Perpendikular	0
	Paralelo	0
Haizea Presioan	Perpendikular	0,627
	Paralelo	0
Haizea Xurgatzen	Perpendikular	- 1,008
	Paralelo	0

3.20.taula: Panela jasan beharreko kargak

**- Vano simple:**  
Luz máxima admisible (m):

Esp. (mm):	Cat. Color (4):	Carga a presión (daN/m <sup>2</sup> ):						
		50	75	100	125	150	175	200
35/40	I-Muy Claro	3,00	2,40	2,10	1,80	1,60	1,40	1,30
	II-Claro	2,50	2,40	2,10	1,80	1,60	1,40	1,30
